*5. En los procedimientos de responsabilidad patrimonial a los que se refiere el artículo 32.9 de la Ley de Régimen Jurídico del Sector Público, será necesario en todo caso dar audiencia al contratista, notificándole cuantas actuaciones se realicen en el procedimiento, al efecto de que se persone en el mismo, exponga lo que a su derecho convenga y proponga cuantos medios de prueba estime necesarios.*

Era berean, entzunaldiaren izapideari buruz 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 82.4 artikuluan hau zehazten du:

*4. Se podrá prescindir del trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta en la resolución otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por el interesado.*

Kasu honetan, BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresak, arestian aipatutako alegazioa aurkeztu zuen entzunaldi izapidean.

**6.- Herri Administrazioaren ahalmenak**

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 190. artikuluan xedatzen ditu Herri Administrazioaren ahalmenak administrazio-kontratuetan. Horrela, kontratazio-organoak du administrazio-kontratuak interpretatzeko ahalmena. Bestalde 191. artikuluan ahalmen horiek aplikatzeko prozedura ezartzen du Legeak; horien artean, kontratistari entzunaldia:

*Subsección 2.ª Prerrogativas de la Administración Pública en los contratos administrativos*

*Artículo 190. Enumeración.*

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

*Dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la presente Ley, el órgano de contratación ostenta la prerrogativa de interpretar los contratos administrativos, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlos por razones de interés público, declarar la responsabilidad imputable al contratista a raíz de la ejecución del contrato, suspender la ejecución del mismo, acordar su resolución y determinar los efectos de esta.*
*Igualmente, el órgano de contratación ostenta las facultades de inspección de las actividades desarrolladas por los contratistas durante la ejecución del contrato, en los términos y con los límites establecidos en la presente Ley para cada tipo de contrato. En ningún caso dichas facultades de inspección podrán implicar un derecho general del órgano de contratación a inspeccionar las instalaciones, oficinas y demás emplazamientos en los que el contratista desarrolle sus actividades, salvo que tales emplazamientos y sus condiciones técnicas sean determinantes para el desarrollo de las prestaciones objeto del contrato. En tal caso, el órgano de contratación deberá justificarlo de forma expresa y detallada en el expediente administrativo.*

*Artículo 191. Procedimiento de ejercicio.*
*1. En los procedimientos que se instruyan para la adopción de acuerdos relativos a las prerrogativas establecidas en el artículo anterior, deberá darse audiencia al contratista.*
*...*
*3. No obstante lo anterior, será preceptivo el **dictamen del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma** respectiva en los casos y respecto de los contratos que se indican a continuación:*
*a) La interpretación, nulidad y resolución de los contratos, **cuando se formule oposición por parte del contratista.***
*b) Las modificaciones de los contratos cuando no estuvieran previstas en el pliego de cláusulas administrativas particulares y su cuantía, aislada o conjuntamente, sea superior a un 20 por ciento del precio inicial del contrato, IVA excluido, y su precio sea igual o superior a 6.000.000 de euros.*
*c) Las reclamaciones dirigidas a la Administración con fundamento en la responsabilidad contractual en que esta pudiera haber incurrido, en los casos en que las indemnizaciones reclamadas sean de cuantía igual o superior a 50.000 euros. Esta cuantía se podrá rebajar por la normativa de la correspondiente Comunidad Autónoma.*

## V.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

*1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada*

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

*aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*
*2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.856.976 euro) baino altuagoa da; gainera, kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, bost urte baina gehiagokoa denez, **Udaleko Osoko Bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren eta kontuhartzailearen aldeko txostenak ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2023ko abenduaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honakoa hau izanda da:

**Aldeko botoak**: Kristina Peláez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Garbiñe Marzol Ormazábal

**Abstentzioak:** Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Domínguez Landa eta José María Villanueva Tellería.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

**IRIZPENA**

**LEHENA**.- BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresari 755,70 euroko zenbatekoa gehi %21eko BEZa (914,40 euro BEZa barne) ordaintzea, langileek ordu-sindikalengatik eta udaletxean dituzten bilerengatik galdutako orduak konpentsatzeko, betiere enpresa

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

emakidadunak langile horiek ordezkatu baditu. Horretarako, zerbitzura atxikitako lau udal-langileen ordezkapenagatik izandako gainkostuen justifikazio dokumentala aurkeztu beharko du enpresak, zuzenbidean baliozkoak eta zalantzarik gabe gainkostuak frogatzen dituzten dokumentuak erabiliz.

**BIGARRENA**.- Erabakiaren berri ematea interesdunari, Kontuhartzailetza eta Diruzaintza Sailari, Kirol Sailari eta Idazkaritza Orokorra, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa eta Ondarea Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Xabier Balerdi Tolosa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du BPXPORT XXI SLU enpresak egindako eskaera: Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida kontratuan Usabal kiroldegiko udal-langileen bajen ordezkatze gainkostuari buruzkoa.

## 3. ONARTZEA RONDILLA LUZAPENA EREMUKO ETA ALONDEGIKO APARKALEKUETAN INDARREAN DAUDEN PREZIOAK EGUNERATZEKO ESKARIA.

**Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2023ko abenduaren 20ko irizpena**

Tolosako Udaleko erregistroan, 2023ko abenduaren 18an, 15425 sarrera-erregistro zenbakiarekin, Arramele Siglo XXI, S.A. (A20934188), honako eskaera hau egin duela: 2024rako Lapurdi eta Alhondigako parkinetako tarifak onartzeko eskaera.

**Proposamena**: datorren urteko tarifak kalkulatzeko 2013koei ondorengo igoera aplikatzea.

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

| | 2013 | IPC<br>23,20% | PROPOSAMENA |
|---|---|---|---|
| **0-5** | 0,0000 | 0,0000 | 0,0000 |
| **6-15** | 0,0241 | 0,0297 | 0,0258 |
| **16-30** | 0,0120 | 0,0148 | 0,0129 |
| **31-60** | 0,0241 | 0,0297 | 0,0258 |
| **>60** | 0,0241 | 0,0297 | 0,0258 |
| | | 0,0000 | |
| **Egunean gehienez** | 17,3200 | 21,3382 | 18,5700 |
| **15 min** | 0,3200 | 0,3942 | 0,3875 |
| **30 min** | 0,3200 | 0,6700 | 0,5821 |
| **1 hora** | 1,4200 | 1,7494 | 1,5500 |
| **2 horas** | 2,8400 | 3,4989 | 3,1000 |
| **Eguneko abonua** | 78,9800 | 97,3034 | 85,0000 |
| **Gaueko abonua** | 47,6900 | 58,7541 | 60,0000 |
| **24 orduko abonua** | 115,8400 | 142,7149 | 115,0000 |
| **Goizeko abonua** | 57,9200 | 71,3574 | 65,0000 |

**Azterketa**

2007ko apirilaren 4an Tolosako udalak eta UTE Alhondigak Alondegiko aparkalekuko tarifak sinatu zituzten. Bestalde, Rondillako garajeei buruz, 2008ko abenduaren 5ean Arramele Siglo XXI enpresarekin sinatu zen kontratua errotazio garajeen ustiapenerako eta bertan ondorengoa adierazten da aurrekarietako lehen atalean:
*"... aurtengo irailaren 30ean egindako Osoko Bilkuran UTE Alhondiga aldi baterako enpresa elkartearekin Udal honek 2007ko apirilaren 4an izenpetutako kontratua zabaltzea erabaki zen."*

Alhondigako garajeen tarifak xedatzen dituzten baldintzetan hau esaten da:

*" 6. TARIFAS QUE EL CONCESIONARIO APLICARÁ EN EL RÉGIMEN DE ROTACIÓN.
…. Siendo actualizados con el IPC acumulado en el momento de inicio de actividad, considerándodse reactualización anual tras la publicación del indece de precios al consumo por parte del Ministerio de Hacienda "*

Kontzesiodunak tarifak aurkeztu ditu. Hauek Euskal Herriko KPI bidez eguneratuko dira"

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

Azken eguneraketa 2013ko apirilaren 30an izan zen.

2013ko urtarriletik 2023ko iraila bitarteko KPIa 23,2ko izan da.

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

**Aldeko botoak**: Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ainhoa Dominguez, Biotza Agirre Ugalde, Kristina Pelaez Errazkin, eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Aho batez onartu da.

Hau dela eta, batzordeak

**DIKTAMINATU DU**

**Lehena:** Arramele Siglo XXI, S.A. ko ordezkariak egindako proposamena onartzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Xabier Balerdi Tolosa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Rondilla Luzapena eremuko eta Alondegiko aparkalekuetan indarrean dauden prezioak eguneratzeko eskaria.

## 4. HASIERAKO ONARPENA EMATEA 2024KO AURREKONTU OROKORRARI.

**Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2023ko abenduaren 20ko irizpena**

**Aurrekariak**

2024ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra eta bere barne dauden ondorengo aurrekontuak aurkeztu dira:

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

| | |
|---|---|
| Udala | 38.245.967,00 |
| Tolargi S.L. | 962.888,00 |
| Tolosa Gasa S.A. (%60ko partaidetza) | 317.814,00 |

Ogasuneko zinegotzi delegatuak aurrekontuaren lerro nagusiak azaldu ditu.

Aurrekontu Orokorra osatzen duten aurrekontuetako bakoitzean sartu dira ekitaldian likidatu beharreko eskubideengatik aurreikusitako sarreren egoera eta ordainketazko nahiz konpromisozko beharrei aurre egiteko kredituen gastuen egoera.

Aurrekontuetan jasotako diru-sarrerak nahikoak dira bertan aurreikusitako gastuei aurre egiteko. Era horretan, Aurrekontu Orokorrak ez du hasierako defizitik.

Aurrekontu Orokorra nahiz bera osatzen duten aurrekontuak egiterakoan aurrekontu gaietan indarrean dauden xedapenak izan dira kontuan.

Aurrekontu Orokorraren onarpena Udalbatzarraren esku dago eta gehiengo soilaren aldeko botoa behar du.

Aurrekontu Orokorra onartzen duen behin-behineko erabakia hartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta udaletxeko iragarki taulan jarriko da jendeari horren berri emateko eta, hamabost laneguneko epean, jendeak aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkez ditzan.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten bada, Udalbatzarrak hilabeteko epean erabaki beharko du eta Aurrekontu Orokorra behin-betiko onartu.

Erreklamaziorik ez badago, hartutako behin-behineko erabakia behin-betikoa izango da.

**Araubide aplikagarria**

21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

Proiektuaren laburpena kapituluka hau da:

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

## Tolosako Udalaren Aurrekontua.

S A R R E R A K — I N G R E S O S

| Kap. | Izena | Euro | Cap. | Denominación | Euros |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Zuzeneko zergak | 6.582.100,00 | 1 | Impuestos directos | 6.582.100,00 |
| 2 | Zeharkako zergak | 700.000,00 | 2 | Impuestos indirectos | 700.000,00 |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak | 5.180.306,00 | 3 | Tasas y otros ingresos | 5.180.306,00 |
| 4 | Transferentzia korronteak | 18.950.696,00 | 4 | Transferencias corrientes | 18.950.696,00 |
| 5 | Ondare sarrerak | 1.213.799,00 | 5 | Ingresos patrimoniales | 1.213.799,00 |
| 6 | Inbertsioen besterenganatzea | 359.066,00 | 6 | Enajenación de inversiones reales | 359.066,00 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 0,00 | 7 | Transferencias de capital | 0,00 |
| 8 | Finantza Aktiboak | 0,00 | 8 | Activos financieros | 0,00 |
| 9 | Finantza Pasiboak | 5.260.000,00 | 9 | Pasivos financieros | 5.260.000,00 |
| | GUZTIRA | 38.245.967,00 | | TOTAL | 38.245.967,00 |

GASTUAK — GASTOS

| Kap. | Izena | Euro | Cap. | Denominación | Euros |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal Gastuak | 12.383.653,00 | 1 | Gastos de personal | 12.383.653,00 |
| 2 | Ondasun arrunt eta zerbitzuak | 14.573.516,00 | 2 | Bienes corrientes y servicios | 14.573.516,00 |
| 3 | Finantza Gastuak | 66.000,00 | 3 | Gastos financieros | 66.000,00 |
| 4 | Transferentzia korronteak | 4.798.398,00 | 4 | Transferencias corrientes | 4.798.398,00 |
| 6 | Inbertsio errealak | 4.648.400,00 | 6 | Inversiones reales | 4.648.400,00 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 1.076.000,00 | 7 | Transferencias de capital | 1.076.000,00 |
| 8 | Finantza Aktiboak | 0,00 | 8 | Activos financieros | 0,00 |
| 9 | Finantza Pasiboak | 700.000,00 | 9 | Pasivos financieros | 700.000,00 |
| | GUZTIRA | 38.245.967,00 | | TOTAL | 38.245.967,00 |

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

## Tolargi S.L.ren Aurrekontua

SARR E R A K/ I N G R E S O S

| Kap. | Izena | Euro | Cap. | Denominación | Euros |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Zuzeneko zergak | 0,00 | 1 | Impuestos directos | 0,00 |
| 2 | Zeharkako zergak | 0,00 | 2 | Impuestos indirectos | 0,00 |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak | 1.263.975,00 | 3 | Tasas y otros ingresos | 1.263.975,00 |
| 4 | Transferentzia korronteak | 0,00 | 4 | Transferencias corrientes | 0,00 |
| 5 | Ondare sarrerak | 0,00 | 5 | Ingresos patrimoniales | 0,00 |
| 6 | Inbertsioen besterenganatzea | 0,00 | 6 | Enajenación de inversiones reales | 0,00 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 0,00 | 7 | Transferencias de capital | 0,00 |
| 8 | Finantza Aktiboak | -301.087,00 | 8 | Activos financieros | -301.087,00 |
| 9 | Finantza Pasiboak | 0,00 | 9 | Pasivos financieros | 0,00 |
| | GUZTIRA | 962.888,00 | | TOTAL | 962.888,00 |

G A S T U A K G A S T OS

| Kap. | Izena | Euro | Cap. | Denominación | Euros |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal Gastuak | 428.941,00 | 1 | Gastos de personal | 428.941,00 |
| 2 | Ondasun arrunt eta zerbitzuak | 251.547,00 | 2 | Bienes corrientes y servicios | 251.547,00 |
| 3 | Finantza Gastuak | 6.900,00 | 3 | Gastos financieros | 6.900,00 |
| 4 | Transferentzia korronteak | 0,00 | 4 | Transferencias corrientes | 0,00 |
| 6 | Inbertsio errealak | 263.000,00 | 6 | Inversiones reales | 263.000,00 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 0,00 | 7 | Transferencias de capital | 0,00 |
| 8 | Finantza Aktiboak | 0,00 | 8 | Activos financieros | 0,00 |
| 9 | Finantza Pasiboak | 12.500,00 | 9 | Pasivos financieros | 12.500,00 |
| | GUZTIRA | 962.888,00 | | TOTAL | 962.888,00 |

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

## Tolosa Gasa S.A.ren Aurrekontua (%60a)

SARR E R A K %60 — I N G R E S O S 60%

| Kap. | Izena | Euro | Cap. | Denominación | Euros |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Zuzeneko zergak | 0,00 | 1 | Impuestos directos | 0,00 |
| 2 | Zeharkako zergak | 0,00 | 2 | Impuestos indirectos | 0,00 |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak | 456.569,00 | 3 | Tasas y otros ingresos | 456.569,00 |
| 4 | Transferentzia korronteak | 0,00 | 4 | Transferencias corrientes | 0,00 |
| 5 | Ondare sarrerak | 0,00 | 5 | Ingresos patrimoniales | 0,00 |
| 6 | Inbertsioen besterenganatzea | 0,00 | 6 | Enajenación de inversiones reales | 0,00 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 0,00 | 7 | Transferencias de capital | 0,00 |
| 8 | Finantza Aktiboak | -138.755,00 | 8 | Activos financieros | -138.755,00 |
| 9 | Finantza Pasiboak | 0,00 | 9 | Pasivos financieros | 0,00 |
| | GUZTIRA | 317.814,00 | | TOTAL | 317.814,00 |

G A S T U A K %60 — G A S T O S 60%

| Kap. | Izena | Euro | Cap. | Denominación | Euros |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal Gastuak | 15.000,00 | 1 | Gastos de personal | 15.000,00 |
| 2 | Ondasun arrunt eta zerbitzuak | 302.814,00 | 2 | Bienes corrientes y servicios | 302.814,00 |
| 3 | Finantza Gastuak | 0,00 | 3 | Gastos financieros | 0,00 |
| 4 | Transferentzia korronteak | 0,00 | 4 | Transferencias corrientes | 0,00 |
| 6 | Inbertsio errealak | 0,00 | 6 | Inversiones reales | 0,00 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 0,00 | 7 | Transferencias de capital | 0,00 |
| 8 | Finantza Aktiboak | 0,00 | 8 | Activos financieros | 0,00 |
| 9 | Finantza Pasiboak | 0,00 | 9 | Pasivos financieros | 0,00 |
| | GUZTIRA | 317.814,00 | | TOTAL | 317.814,00 |

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

**Aurrekontu bateratua**

| SARRERAK | | | INGRESOS | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Kap. | Izena | Euro | Cap. | Denominación | Euros |
| 1 | Zuzeneko zergak | 6.575.010 | 1 | Impuestos directos | 6.575.010 |
| 2 | Zeharkako zergak | 700.000 | 2 | Impuestos indirectos | 700.000 |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak | 6.879.449 | 3 | Tasas y otros ingresos | 6.879.449 |
| 4 | Transferentzia korronteak | 18.950.696 | 4 | Transferencias corrientes | 18.950.696 |
| 5 | Ondare sarrerak | 1.213.799 | 5 | Ingresos patrimoniales | 1.213.799 |
| 6 | Inbertsioen besterenganatzea | 359.066 | 6 | Enajenación de inversiones reales | 359.066 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 0,00 | 7 | Transferencias de capital | 0,00 |
| 8 | Finantza Aktiboak | -439.842 | 8 | Activos financieros | -439.842 |
| 9 | Finantza Pasiboak | 5.260.000 | 9 | Pasivos financieros | 5.260.000 |
| | GUZTIRA | 39.498.178 | | TOTAL | 39.498.178 |

| GASTUAK | | | GASTOS | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Kap. | Izena | Euro | Cap. | Denominación | Euros |
| 1 | Pertsonal Gastuak | 12.827.594 | 1 | Gastos de personal | 12.827.594 |
| 2 | Ondasun arrunt eta zerbitzuak | 15.099.386 | 2 | Bienes corrientes y servicios | 15.099.386 |
| 3 | Finantza Gastuak | 72.900 | 3 | Gastos financieros | 72.900 |
| 4 | Transferentzia korronteak | 4.798.398 | 4 | Transferencias corrientes | 4.798.398 |
| 6 | Inbertsio errealak | 4.911.400 | 6 | Inversiones reales | 4.911.400 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 1.076.000 | 7 | Transferencias de capital | 1.076.000 |
| 8 | Finantza Aktiboak | 0,00 | 8 | Activos financieros | 0,00 |
| 9 | Finantza Pasiboak | 712.500 | 9 | Pasivos financieros | 712.500 |
| | GUZTIRA | 39.498.178 | | TOTAL | 39.498.178 |

Proposamena bozkatu egin da, ondorengo emaitzarekin:

- **Aldeko botoak**: Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Kristina Pelaez Errazkin
- **Abstentzioa:** Jose Mª Villanueva Telleria, Ainhoa Dominguez Landa eta Biotxa Agirre Ugalde.

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

Hau dela eta, batzordeak

**DIKTAMINATU DU**

**Lehena:** 2024ko Aurrekontu Orokorrari hasierako onarpena ematea.

**Bigarrena:** Jendaurrean jartzea hamabost egunetan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren, interesatuek erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

**Hirugarrena:** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz gain Tolosako Udalaren web orrian eta iragarki taulan argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

**Aurkako botoak:** Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Xabier Balerdi Tolosa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, hasierako onarpena eman dio 2024ko Aurrekontu Orokorrari.

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

5. **<u>2023/17 KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEKOA.</u>**

2023/17 kreditu gehigarrrien modalitateko kreditu aldaketaren berri eman da. 2023/2386 Alkatetza dekretuak hau dio:

| | |
|---|---|
| *UNITATEA* | ***KONTUHARTZAILETZA*** |
| *XEDEA* | *17/2023 KREDITU ALDAKETA* |

***ALKATETZA DEKRETUA***

***ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI*** *Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.*

***IKUSIRIK***

*Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 17/2023 kreditu aldaketa.*

*Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.*

*Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikuluaren bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau*

***EBAZTEN DUT***

***LEHENA.-*** *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

***KREDITU GEHIGARRIAK***

| **Kapituluak** | **Izena** | **Gehikuntzak** |
|---|---|---|
| 1 | PERTSONAL GASTUAK | 55.000,00 |
| 2 | GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN | 25.000,00 |
| | **KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA** | **80.000,00** |

***FINANTZAKETA***

| **Kapituluak** | **Izena** | **Zenbatekoa** |
|---|---|---|
| 8 (SARRERAK) | FINANTZA AKTIBOAK | 80.000,00 |
| | **GUZTIRA** | **80.000,00** |

***BIGARRENA.-*** *Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.*

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

*Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.*

| | |
|---|---|
| *ALKATEA* | *UDAL IDAZKARIA* |
| *Angel Martinez de Rituerto Arregui* | *Begoña Garmendia Vazquez* |

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

## 6. <u>2023/18 KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEKOA.</u>

2023/18 kreditu gehigarrrien modalitateko kreditu aldaketaren berri eman da. 2023/2641 Alkatetza dekretuak hau dio:

| | |
|---|---|
| *UNITATEA* | ***KONTUHARTZAILETZA*** |
| *XEDEA* | *18/2023 KREDITU ALDAKETA* |

***ALKATETZA DEKRETUA***

***ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI** Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.*

***IKUSIRIK***

*Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 18/2023 kreditu aldaketa.*

*Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.*

*Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikuluaren bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau*

***EBAZTEN DUT***

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

**LEHENA.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

***KREDITU GEHIGARRIAK***

| **Kapituluak** | **Izena** | **Gehikuntzak** |
|---|---|---|
| 1 | PERTSONAL GASTUAK | 20.898,00 |
| 2 | GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN | 85.000,00 |
| **KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA** | | **105.898,00** |

***FINANTZAKETA***

| **Kapituluak** | **Izena** | **Zenbatekoa** |
|---|---|---|
| 8 (SARRERAK) | FINANTZA AKTIBOAK | 105.898,00 |
| **GUZTIRA** | | **105.898,00** |

***BIGARRENA.-*** *Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.*

*Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.*

| *ALKATEA* | *UDAL IDAZKARIA* |
|---|---|
| *Angel Martinez de Rituerto Arregui* | *Begoña Garmendia Vazquez* |

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

**7. PENTSIOARI BURUZKO MOZIOAK:
EHBILDUK (EHPM) AURKEZTUTAKOA.**

Tolosako EHBildu udal taldeak Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduaren mozioa aurkeztu du.

Mozioak honela dio:

***"EHPMren mozioa pentsiodun guztiek gutxienez 1080 euroko diru-sarrerak izatea bermatzeko***

*"EHPMk (Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak) zuengana jotzen du Tolosako Udalaren osoko bilkuran mozio bat onar dezazuen, gure funtsezko aldarrikapenetako bat babestuz:* ***pentsiodun guztiek gutxienez 1080 euroko diru-sarrerak izatea bermatzea, 14 ordainsaritan.***

*Idazki honekin batera doakizu Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika eta Gazteria Batzordearen aurrean egin eta aurkeztu dugun txosten laburtua. Bertan eskatzen eta justifikatzen dugu errebindikazio hori, nola gauzatu eta zenbatesten dugu kostua. Txostena eskari horrekin hasten da:*

*"EHPM-MPEHk egindako txosten honen bidez, 2023rako gutxieneko pentsioa 1080 eurotan ezartzeko gure berehalako eskaria bultzatu nahi dugu. Eskari hori Estatuko Gobernuari zein EAEko eta Nafarroako gobernuei zuzentzen diegu; azken horiei, gainera, eskatzen diegu, gaur egun 783 eurotan dagoen gutxieneko pentsioa finkatzen ez den bitartean, gutxieneko pentsio hori 1080 eurora arte osa dezatela hamalau ordainsaritan.*
*Txosten honekin urrats bat gehiago ematen dugu gure eskariaren azalpenean, eta EAEko eta Nafarroako beharrezko aurrekontuaren zenbatespen ekonomikoa kalkulatuko dugu."*

*Gainera, txosten horretan (ikus dezakezuen bezala) adierazten dugu eskaera hori premia sozial urgentea eta justiziazkoa dela, erakunde publikoek herritarrei bizi-baldintza duinak bermatzeko behar diren erabakiak hartzeko betebeharra dutelako; baldintza horiek, lanetik etorritako diru-sarrerarik ez duten adineko pertsonen eta pentsiodunen kasuan, gutxieneko diru-sarrera nahikoak bermatu behar dituzte.*
*1080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeak nabarmen murriztuko luke pentsioetan dagoen genero-aldea. Bizi-kostuaren igoeraren arabera pentsioak EZ errebalorizatzearen ondorioak nabarmenak dira, txostenaren 13. orrian ikus daitekeen bezala: "... egiaztatzen dugu azken urteetan (2011tik 2023ra) LGSa 641,40 eurotik 1080 eurora igo dela, baina gutxieneko pentsioa 601,40 eurotik 783 eurora baino ez da igo. Pentsioak soldata geroratuak dira, zalantzarik gabe, eta haien zenbatekoa zuzenean lotuta dago jasotzen diren soldatekin; beraz, gutxieneko pentsioak ere LGS izan behar du erreferentzia gisa. Onartezina da 2011n Gutxieneko Pentsioan LGSren % 93,7 izatea eta 2023an % 72,5 izatea. "*

*Gaur egungo bizi-kostuaren hazkunde esponentzialaren testuinguruan, gero eta*

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

*pentsiodun gehiagok eten egiten dituzte etxebizitza osasungarria eta beren beharretara egokitutakoa, elikadura osasuntsua, osasuna eta arreta eraginkorra bermatzea mendekotasuna artatzeko dituzten beharrak arintzeko, etab. Gaur egun EAEn, 167.718 pentsiodunek 1080 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte pentsioengatik, eta horietako gehienak emakumeak dira.*

*Gutxieneko pentsioak, aldagai guztietan, emakume izena du. Izan ere, genero-arrakala horren aurrekari dira soldaten desberdintasuna eta emakumeak alde bakarretik esleitzea ordaindu gabeko edo gaizki ordaindutako lanari ugalketaren eta zaintzaren esparruan.*

*1080ko aldarrikapen horrek duela bost urte baino gehiagotik gure mobilizazioetan parte hartu duten milaka pertsonek ematen dioten zilegitasuna du.*
*Ondorioztatzen dugu ez dagoela arrazoi ekonomiko edo politikorik ez egiteko, eta ezin dugu egun bat gehiago itxaron.*

*Horregatik, Tolosako udalaren osoko bilkurari honako erabaki hau eskatzen diogu:*

*1.- EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari demandatu, 1080 eurora arte osatu dezaten pentsiodunen gutxieneko pentsioa 14 ordainsaritan, 2023ko urtarrilera arteko atzeraeraginezko ondorioekin.*

*2.- EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari jakinaraztea udal honen osoko bilkuran hartutako erabakia, 2023ko Abenduaren 28an egun honetan.*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

**Aurkako botoak:** Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Xabier Balerdi Tolosa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du EHBilduk (EHPM) aurkeztutako pentsioari buruzko mozioa.

**EAJ/PNVK AURKEZTUTAKOA.**

Tolosako EAJ-PNV udal taldeak aurkeztu duen mozioak honela dio:

*Ondorengoak adostea eskatzen diogu Tolosako Udalari:*

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

1. *Estatuko Gobernuari eskatzea Eusko Legebiltzarrak 2018ko martxoaren 1ean gehiengo zabal batez adostu zuen akordioan xedatutakoari erantzunez, pentsio sistema nahiko eta jasangarria bermatzea, elkartasunean eta gardentasunean oinarrituta, pentsio duina jasotzeko eskubidea betez eta egiazko finantzaketa iturriak direla medio pentsio duin eta aurreikusgarriak ematen direla bermatuz.*
2. *Estatuko Gobernuari eskatzea gutxieneko pentsioa duintzeko esfortzua egin dezala sistema elikatzeko diru sarrerak handitzera bideratutako neurriak hartuz, sistemaren beraren gastuetan eraginez eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldata erreferentziatzat hartuz.*
3. *Estatuko Gobernuari eskatzea, lehen puntuan aipatzen den akordioa gogoan eta Euskadiko pentsiodunen egoera hobetzera begira ezinbestean bete behar den baldintza dela aintzat hartuz, urratsak ematen has dadila Segurantza Sozialaren eskuduntzak Euskadiko erakundeei transferitzeko, Gernikako Estatutuaren 3/1979 lege Organikoaren 18.2. artikuluan eta Aldi baterako 5. Xedapenean jasotzen denarekin ados.*
4. *Eusko Jaurlaritzari eskatzea Eusko Legebiltzarrak 2022ko abenduaren 22an gehiengo zabal batez onetsi zuen Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren 14/2022 Legearekin ados, pentsiorik baxuenak osatzen jarrai dezala hiritargoaren bizi baldintza duinei eusteko eta prestazio hau Europako estandarretara egokituta dagoela bermatuz.*
5. *Estatuko Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari ezagutzera ematea Udal honetan adostu den akordioa.*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Xabier Balerdi Tolosa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

**Aurkako botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, ez du onartu Tolosako EAJ-PNV udal taldeak aurkeztu duen Pentsioari buruzko mozioa.

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

**8. EHBILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA IRUN ETA BRINKOLA ARTEKO ADIFEN TRENBIDEA ETA RENFEREN ALDIRIKO ZEIN DISTANTZIA ERDIKO ZERBITZUAK HOBETZEKO.**

Mozioak honela dio:

***"Irun eta Brinkola arteko ADIFen trenbidea eta RENFEren aldiriko zein distantzia erdiko zerbitzuak hobetzeko mozioa.***

*Gipuzkoan mugikortasun iraunkorra bermatzeko garraio publiko guztien arteko koordinazioa eta eraginkortasuna sustatzea beharrezkoa da. Horretarako, ezinbestekoa da Renferen zerbitzuaren kalitatea bermatzea eta zabaltzea.*

*Irun eta Brinkola arteko trenbideak eta azpiegitura osoak berrizte gutxi izan ditu azkeneko bi hamarkadetan, horren ondorioz gabezia asko ditu azpiegiturak, baita irisgarritasun arazo handiak ere. Azpiegitura hau hobetzea ez da lehentasunezkoa izan honen arduradunentzat.*

*Zerbitzu hau egunero milaka gipuzkoarrek erabiltzen duten arren, Adif, Renfe eta Espainiako Sustapen Ministerioak oso inbertsio gutxi egin dituzte azpiegitura hau hobetzeko. Are gehiago, AHTaren obraren ondorioz, 2017ko apirilaren 18tik etengabeak izan dira murrizketak Errenteria-Lezo eta Irun arteko trenbide bakarreko zirkulazioa ezarri zelako. Ordutik, egunero aldiriko 42 tren gutxiago dabiltza Irun eta Errenteria artean eta distantzia ertaineko 8 gutxiago Gasteiz eta Irun-Donostia artean.*

*Irun eta Brinkola arteko linean maiz ematen diren matxuren ondorioz, ohikoa bihurtu da tren zerbitzua bertan behera gelditzea aurreabisurik gabe edo minutu askoren atzerapenarekin ibiltzea. Horregatik, erabiltzaileak zerbitzuarekiko konfiantza galtzen ari dira.*

*Ohikoak bihurtu dira azpiegituretako katenarien matxurak tentsio faltagatik, trenen azpiegituren orratzetan eta seinaleetan ere ohikoak dira aberiak. Trenen eta hauen materialaren egoera ere oso kezkagarria da, flota erabat zaharkituta dago, gehienek 35 urte baino gehiago dituzte.*

*Gipuzkoako garraio publikoa hobetzeko ezinbestekoa da erabiltzaileek aldiriko zein herrialde arteko distantzia erdiko zerbitzuengan zuten konfiantza berreskuratzea. Horretarako, eskaintzen den zerbitzua bermatu behar da, beharrezkoak diren lanak modu egokian eginez, trenen mantentze lanak indartuz eta unitate berriak martxan jarriz.*

*Geltokiak ez daude erabiltzaile guztientzat egokituta, trena eta nasaren arteko distantziak handiegiak direlako. Gainera, oraindik hainbat geltokitan trenbide gaineko pasabide arriskutsuak daude. Honek istripu oso larriak eragiten ditu. Beraz, zerbitzua eskasa den arren eta irisgarritasuna leku askotan bermatuta ez dagoen arren, ez dira azpiegitura honen arazo bakarrak, herritarren segurtasuna ere arriskuan jartzen du azpiegitura zaharkituak.*

*Hau guztiagatik, Gipuzkoako erakunde askok egin duten moduan, bada garaia berriz ere Madrilgo gobernuari eskaria egin eta gure lurraldea zeharkatzen duten trenbide sare guztien kudeaketa eskuratzeko.*

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

*Agerikoa da egungo kudeatzaileentzako ez dela lehentasunezkoa eskaintzen diren tren zerbitzuen maiztasunak eta ordutegiak bermatzea, ezta azpiegitura hauen erabiltzaileen segurtasuna bermatzea ere.*

***MOZIOA***

- ***Tolosako udalak*** *urgentziaz eskatzen dio Renfe operadoreari Irun-Brinkola aldiriko zein erdiko distantziaren linean eskaintzen duen zerbitzuaren maiztasunak eta ordutegiak bete ditzala.*

- ***Tolosako udalak*** *Sustapen Ministerioan zein Eusko Jaurlaritzaren Garraio Sailari eskatzen die ahalik eta gehien gutxitze dezatela Adif eta ETS Gipuzkoan egiten ari diren AHTaren obrek aldiriko zein distantzia erdiko trenen zirkulazioan eragiten duten kaltea.*

- ***Tolosako udalak*** *Espainiako Gobernuari eskatzen dio Eusko Jaurlaritzaren esku utz ditzala EAEn Adifek kudeatzen dituen trenbide azpiegiturak, hauen artean Irun eta Brinkola artekoa. Eta jar ditzala baliabideak Irun eta Gasteiz arteko distantzia erdiko zein tren zerbitzuen kudeaketa aurrera eramateko beharrezkoak diren baliabideak.*

- ***Tolosako udalak*** *eskatzen dio Adifi azpiegituretan hobekuntzak egin ditzala, bereziki trenbidearen gaineko pasabide arriskutsuak kentzeko prozesua azkartzeko eta geltokietan eta inguruetan erabiltzaile guztien irisgarritasuna bermatzeko.*

- ***Tolosako udalak*** *eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari zerbitzu eta azpiegituren eskaera egin diezaiola Espainiako Gobernuari eta plangintza bat landu dezala zerbitzua hartu bezain pronto guztiz beharrezkoak diren hobekuntzak aurrera eramateko. “*

ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Xabier Balerdi Tolosa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du mozioa Irun eta Brinkola arteko ADIFen trenbidea eta RENFEren aldiriko zein distantzia erdiko zerbitzuak hobetzeko.

**9. <u>GALDERAK ETA ESKAERAK</u>.**

Besterik gabe, 21:35ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEA
*O.e.*

IDAZKARIA



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU3b79b78f-2069-4a88-806b-f0d717146ecb**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2023IPLE0017-2023-12-28 Ohiko osoko bilkura akta/2023-12-28 Ohiko osoko |
|---|---|

Sinatzailea 1 / Firmante 1: MARIA BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ - 15924469M
Data / Fecha: 2024/01/19 17:01:25

Sinatzailea 2 / Firmante 2: ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI - 72438134W
Data / Fecha: 2024/01/22 08:27:57